

SARRERAK

Gure enpresa bezeroak haien aisialdian egoteko toki aproposa da. Horrenbestez, elikagaiak ez ezik, uneoro eskuragarri izango ditugun ikasgela eta kontzertuetarako ordaintzeko prest egongo dira.

Gure kasuan, taberna bat izanik, ohikoena fisikoki ordaintzea izango da. Hala ere, proiektu berritzaile eta modernoak denez, bezeroek txartel edota mugikor bidez ordaintzeko aukera izango dute. Honi esker, gure enpresa modernizazioaren munduan murgilduko da.

Diru-sarreraren iturri nagusia bezeroak eurak izango dira. Horrez gain, enpresa berritzailea, gazteek sorturikoa eta ingurumena zaintzeagatik udaletxeak diru-laguntzaren bat eskainiko digulakoan gaude.

Prezioen finkapenerako, produktuen kalitatea izango da gehien bat kontuan hartuko dugun faktorea. Dena den, sukaldari eta zerbitzarien ahalmen eta lan ezinhobearen balioa ere ez dugu ahaztuko.

Gure helburuen artean diru-sarrerak gastuen bikoitza izatea dago, erabiliko ditugun ekoizpen-faktoreak merkeak ez direla kontuan izanda. Izan ere, ingurumenarekiko lagungarriak diren baliabideak eta bertako produktuak garestiak izan ohi dira.

